

# ERAKUSKETARIAREN GIDA

Zure interesekoa izan daitekeen informazio garrantzitsua du, parte-hartzea errazteko.  
Mesedez, irakur ezazu eskuliburua arretaz.

## AURKIBIDEA

1. TOKIA, DATA ETA ORDUTEGIA
2. ERAKUSKETARIENTZAKO ARRETA
3. ERAKUSKETARIEN PASEAK
4. MUNTATZEA- MERKANTZIAK SARTZEA – DESMUNTATZEA
5. ORDAINKETA
6. BISITARIAK
7. INAUGURAZIO OFIZIALA
8. HITZALDIAK ETA JARDUERAK
9. ERAKUSKETARIEN DIREKTORIOA
10. APP. QR TXARTELEN IRAKURGAILUA
11. WIFIA
12. APARKALEKUA
13. BIDAIK ETA OSTALARITZA
14. BESTE ZERBITZU BATZUK
  - OSASUN ZERBITZUAK
  - BEUP KIROL ZENTROA

---

## 1. TOKIA, DATA ETA ORDUTEGIA

---

Tokia: BILBAO EXHIBITION CENTRE – BEC  
**Pabellón Luxua**  
Ronda de Azkue, 1  
48902 Barakaldo  
94 404 00 32/ 01 24  
egurtek@bec.eu  
www.egurtek.com

Nola iritsi BECera: [Luxua pabiloia](#) BECeko iparraldeko sarreran dago, 43.290472-2.989612 koordinatuetan. Ibilgailu pribatua joanez gero, lurpeko aparkalekuaren gune urdinean aparkatzea gomendatzen dizugu. Informazio gehiago nahi izanez gero, sakatu [HEMEN](#)

Egunak eta ordutegia: 2024ko Urriak 16 -17 10:00etatik 18:00etara. Ordutegi horretan zehar, standetan jendea egongo da harrera egiteko, eta materiala bistan egongo da.

Aukeran, erakusketariak **ordutegia baino ordu bat lehenago sartu eta ordu bat beranduago atera** ahal izango dute.

---

## 2. ERAKUSKETARIENTZAKO ARRETA

---

Urriaren 16tik, asteazkenetik, urriaren 17ra, ostegunera, erakusketarietako arreta egongo da **ERAKUSKETARIEN ARRETARAKO BULEGOAN:**

**Asteartea 15:** 9:00etatik 17:30etara  
**Asteazkena 16:** 09:00etatik 18:00etara  
**Osteguna 17:** 09:30etatik 18:00etara  
**Ostirala 18:** 09:00etatik 15:00etara

Bulegoa eraikineko erdiko korridorean dago, Eremu Urdinean, 1. pabiloirako sarreraren alboan ([Planoa ikusi](#)).

---

## 3. ERAKUSKETARIEN PASEAK

---

Erakusketarien paseak muntaketaren, erakusketaren eta desmuntaketaren egunetarako balio dute. Norberarenak eta besterenezinak dira. Standaren muntaketara sartzeko, ezinbestekoa da erakusketariaren akreditazioa erakustea.

Oraindik eskatu ez baduzu, Erakusketariaren Eremu Pribatuaren bitartez egin dezakezu. AKREDITAZIOAK. Sakatu [HEMEN](#).

---

## 4. MUNTATZEA- MERKANTZIAK SARTZEA – DESMUNTATZEA

---

Standaren muntaketara sartzeko, beharrezkoa da aurretik Parte Hartzeko Baldintzen 7. Artikuluan ageri den zenbatekoa ordaindu izana.

**Standen muntaketa** urriaren 15ean egingo da 08:00etatik 20:00etara.

Ekitaldiko zuzendaritzak aldi horretan erakusketariak hartu eta apaindu ez dituzten eremuak hartu ahal izango ditu. Hala ere, erakusketariak 7. artikuluan ezarritakoa bete beharko du eta eremuaren alokairuaren prezioa gehi derrigorrezko merkantzien eta erantzukizun zibilaren aseguruaren primak ordaindu beharko ditu, baita hornitutako zerbitzuen zenbatekoa ere.

Urriaren 15etik 18ra, ibilgailuak sar daitezke aparkalekura.

Luxua aretora salgai txikiak sartzeko (adb.: kutxa txikiak, roll up-ak, etab.), aparkalekuan kokatutako igogailua erabiliko da (eremu urdina). Standerako beharrezkoak diren salgaiak deskargatu ondoren, kotxea aparkalekuaren plaza batean aparkatu beharko dute.

### Arreta:

- Pisu/bolumen handiagoa duten salgaietarako (ohiko igogailu batean sartzen ez direnak), Salgaien Sarbidearen amaieran kokatutako karga-jasogailua erabili beharko da; bertara, BECeko Hegoaldeko Sarreratik heltzen da. Behin deskarga burututa, kotxea aparkalekuko plaza batean aparkatu beharko da (Eremu urdina).

### Ibilgailuen “merkantzia” gunean Sartzeko eta Egoteko Araudia Muntaketa/Azoka/Desmuntaketa egunetarako.

Zama-lanetarako gehieneko denbora:

- |   |         |
|---|---------|
| • Turismoak eta monobolumenak:                              | Ordu 1. |
| • 3.500 kg-tik beherako karga baimenduta duten ibilgailuak. | 2 ordu. |
| • 3.500 kg-tik gorako karga baimenduta duten ibilgailuak.   | 3 ordu. |

Denbora hori igaro ostean, derrigorrezkoa da ibilgailuak edo furgonetak bertatik atera eta lur azpiko aparkalekuan sartzea. **Denbora-tarte horiek gainditzen dituzten egonaldiak orduko 30,00 €-rekin zigortuko dira.**

### Gogoratu:

- Esparrura sartzean jasotako txartela denbora guztian ikusgai utzi.
- Merkantziak sartzeko ateen aurrean, larrialdietarako irteeretan eta suteen aurkako instalazioetan ez aparkatu.
- Lur azpiko aparkalekura sartzeko altuera 2,20 metrokoa da. BECek beste aparkaleku bat du kanpoan ibilgailu altuagoentzako.

### Aurretiko Garbiketa

Urriaren 15ean 20:00etan, erakusketariak bota nahi dituzten paketatze edo elementu guztiak kendu beharko dituzte beren standetik. Hala, korridorean utzi beharko dituzte antolakuntzak pabiloia garbi dezan.

### MERKANTZIEN banaketa eta entrega

Merkantzien harrera erakusketari bakoitzaren erantzukizunpean egingo da zuzenean bere standean, urriaren 15ean. Erakusketariak **bertan edo ordezkatura** egon beharko du paketeak iristean.

Hartzailea bertan egongo ez balitz, antolakuntzak ez ditu merkantziak jasoko eta, lapurretaren bat edo galeraren bat gertatuz gero, ez du erantzukizunik bere gain hartuko.

Behar izanez gero, mesedez, helbideratu merkantzia hona:

**BILBAO EXHIBITION CENTRE**  
Retiro kalea z/g - 48903 Barakaldo.(BIZKAIA)  
**EGURTEK Luxua Pabiloia**  
**Enpresaren izena / Standaren zenbakia**  
**Erakusketariaren telefono mugikorreko zenbakia**

### MATERIALA birjartzea

Erakusketariak egunero joan ahal izango dute haien standetara materiala jartzeko, 9:00etatik (publikoa baino ordubete lehenago) 19:00etara (itxiera baino ordubete geroago).

### DESMUNTATZEA

Guztia ordainduta duten erakusketariak eta irteera-orria zigilatuta dutenek desmuntaketa-lanekin hasi ahal izango dute.

Standak hilaren 17an desmuntatuko dira, bisitariei esparrua itxi ondoren, 21:00ak arte. Urriaren 18an, 08:00etatik 20:00etara.

Erakusketariak eragindako kalte edo hondatzeren bat hautemango balitz, BECeko Zerbitzu Teknikoen Sailaren kontrolaren eta ekimenaren arabera konponketarako aurrekontua prestatuko da. Jarraian, Sailak dagozkion lanak egingo ditu erakusketariaren kontura.

---

## 5. ORDAINKETA

---

Gogorazten dizuegu azokaren eremua utzi aurretik ordaintzeke dauden zenbatekoak ordaindu behar direla. Kutxa eta Erakusketarien Arretarako bulegoa eraikineko erdiko korridorean dago, Eremu Urdinean, 1. pabiloirako sarreraren alboan ([Ikus plana](#)).

- 15an: 9:00etatik 14:00etara eta 14:30etatik 17:30etara
- 16an: 9:30etatik 14:00etara eta 14:30etatik 18:00etara
- 17an: 9:00etatik 14:00etara eta 14:30etatik 18:00etara
- 18an: 9:00etatik 15:00etara

Ostegunean, urriaren 17an, kontuak ordainduta dituzten enpresa guztiek irteera-orria jasoko dute haien standean material guztia ateratzeko.

Ordainketa modu hauetan egin daiteke:

- Eskudirutan (eurotan). 11/2021 legearen arabera, ez da onartuko BECen bulegoetan zuzenean 1.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoarekin eskudirutan egindako ordainketarik.
- Visa eta American Express txartelak.
- Kontuan dirua sartzea edo transferentzia bidez:  
IBAN: ES52 2095 0611 00 9105880388 BIC: BASKES2BXXX  
IBAN: ES29 0182 1290 38 0201504440 BIC: BBVAESMMXXX

Ordainketen inguruko edozein zalantza argitzeko, erakusketarien arretarako bulegora joan zaitezke edo posta elektronikoa honetara idatzi: [administracion@bec.eu](mailto:administracion@bec.eu)

---

## 6. BISITARIAK

---

Bisitari profesionalen izen-ematea doakoa da.

Erakusketariak beren bezeroak gonbidatu ahal izango dituzte ekitaldiaren azken egunera arte baita ere, Erakusketariaren Gune Pribatua bezeroak zure izenean gonbida ditzakezu hurrengo esteka erabiliz: "[ZURE BEZEROAK GONBIDATU](#)".

Erronka Garbia ekimenarekin lanean jarraitzen dugu, Egurtek-en esparruan ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia da. Kontzientzia sortzera eta gero eta jasangarriagoak diren ekitaldietarantz urratsak ematera animatzen zaituztegu.

Hauek dira dekalogoaren 6 puntuak:

- Beharrezkoa ez bada, ez inprimatu kongresuaren programa. App-an kontsultatu.
- Ahalik eta gehien erabili eta botatzeko ontziak mugatu.
- Bereizi zure hondakinak aurkituko dituzun puntu berdeetan.
- Ahal den neurrian mugikortasun iraunkorra sustatu, garraio publikoaren eta partekatutako autoen erabilera areagotuz.
- Beharrezkoa ez den uraren kontsumoa murriztu.
- Beharrezkoak ez diren kasuetan, argiak itzali.

---

## 7. INAUGURAZIO OFIZIALA

---

Inaugurazio Ofiziala urriaren 16an izango da, 9:30tan, auditorioan eta ondoren Luxua pabiloia bisitatuko da.

---

## 8. HITZALDIAK ETA JARDUERAK

---

Kongresuaren programak, jardunaldi teknikoak eta Innovation Workshops kontsultatzeko, sakatu:

[Programa congreso](#)  
[Programa Jornadas Técnicas](#)  
[Programa Innovation Workshops](#)

---

## 9. PARTE HARTZAILEEN DIREKTORIOA

---

Gogoan izan webgunean zure enpresaren datuak eta ordezkatzun dituzun enpresenak betetzea gomendagarria dela, erakusketariaren eremu pribatua - DIREKTORIOA ([sakatu HEMEN](#)),

Parte Hartzaileen Direktorioa bisitarietzako kontsulta-tresna Nagusia da. [HEMEN](#) kontsulta dezakezu.

---

## 10. APP / APP. QR TXARTELEN IRAKURGAILUA

---

Erakusketariak, babesleak, kongresistek eta bisitariak haien datuak truka ditzakete QR irakurgailuaren bitartez. Eskaneatu eta kontaktuak gorde ahal izateko, beharrezkoa da aplikazioa deskargatzea eta erregistratzea.

Sakatu [HEMEN](#) informazio gehiagorako eta app-a deskargatzeko.

---

## 11. WIFI

---

Doako konexioa "Bilbao WiFi" sarearen bidez. Zerbitzua Bilboko Udalak eskaintzen du. Gorabeheretarako telefonoa: +34 944 010 010

Gaitasun edo denbora gehiagoko zerbitzua nahi duen erabiltzaileak, Erakusketariaren Eremu Pribatutik zuzenean kontratatu beharko du: ONLINE DENDA. Sakatu [HEMEN](#)

---

## 12. APARKALEKUA

---

BECeko aparkalekuak 4.000 plaza ditu 3 solairutan. Solairu bakoitzean hiru eremu daude kolore desberdinak dituenak:

- Eremu **urdina** 1. eta 2. pabilioien azpian dago.
- Eremu **laranja** 3. eta 4. pabilioien azpian dago.
- Eremu **berdea** 5. eta 6. pabilioien azpian dago.

Erakusketari eta muntatzaileentzako abonua berezietan gain, zebitzu teknikora eska dezakezuen, [serviciosegurtek@bec.eu](mailto:serviciosegurtek@bec.eu) erabilera puntualetarako, webgunean kontsulta ditzakezu informazioa eta tarifak, baita alde aurretik erreserba egin ere. Informazio gehiago [HEMEN](#)

Bilbao Exhibition Centreko aparkalekuak ibilgailu elektrikoak kargatzeko 27 puntu ditu. [Kargatzeko puntuak](#) 4. pabilioiko iparraldeko eta hegoaldeko guneetako -1 mailan daude, kargagailu mota desberdinak dituzte ibilgailu elektrikoaren beharren edukiera eta eskakizunei erantzun ahal izateko. Kargak [Waylet](#) aplikazioaren bitartez kudeatu daitezke.

Iraunkortasunarekiko konpromisoa eta 2030 ODS- Garapen Jasangarrirako Helburuen Agenda jarraituz, Bilbao Exhibition Centrek bere ekitaldiak **Erronka Garbia** zigiluarekin ziurtatzen hasi da.

Gogorarazi nahi dizuegu Bilbao Exhibition Centrera garraio publikoa erabiliz joan zaitezkeela:

Bilbotik, 3136 Bizkaibus-linea (Bilbo-Gurutzeta-Barakaldo), Barakaldotik, KBus hiri-linea eta metroz, Ansio geltokia, 2. Metro-linean, azoka-eremura irteera duena (BEC!eko iparraldeko sarbidea)

---

## 13. BIDAIK ETA OSTALARITZA

---

Bidaia eta ostalaritza aukera interesgarrien inguruko informazioa eska dezakezu bidaia-agentzia ofizialean, BDC TRAVEL (Vanessa Fornells- Tel: +34 94 605 00 00 - Email: [bec@bcdtravel.es](mailto:bec@bcdtravel.es)).

---

## **14. BESTE ZERBITZU BATZUK**

---

### **OSASUN ZERBITZUAK**

QuirónSaludek, HOSPITALITY zerbitzuaren bitartez, egonaldian zehar beharrezkoa den laguntza mediko oro zure eskura jartzen du. Informazioa **HEMEN** dago eskuragarri.

### **KIROL ZENTROA**

BECek kirol-zentro handia du eta azokako parte-hartzaileek bertara sartzeko aukera izango dute. BEC beUP zentroak eguneko txartela eskaintzen du oso prezio berezian azokara sartzeko akreditazioa erakutsiz gero. Informazioa **HEMEN** dago eskuragarri.

**ERAKUSKETARIENTZAKO BULEGOA / OFICINA ATENCION EXPOSITOR / EXHIBITOR SERVICE OFFICE**



OFICINA ATENCIÓN EXPOSITOR  
ERAKUSKETARIENTZAKO BULEGOA  
EXHIBITOR SERVICE OFFICE





### Batzar Zentroa

Sarbidea: C

Aparkalekua: -1 solairua


Gune Urdina



EXPOSSIBLE!







### BECEKO SARBIDEA



### LUXUA PABILOIRAKO SARBIDEA

